

2016-03-22KO EZOHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2016ko martxoaren 22an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta gaiak aztertzeke zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: 0.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Jose Ignacio Imaz Bengoechea eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga (kanpoan delako zuritu du bere burua).

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2016-02-16; 2016-02-23).

2016eko otsailaren 16ko eta 2016ko otsailaren 23ko bilkuren akten zirriborroak aho batez onartu dira.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016/35 DEKRETUTIK 2016/53 DEKRETURA ARTE.

Alkateak dekretu hauen berri eman dio Udalbatzari: 2016ko 35. zenbakitik 2016ko 53. zenbakira bitartekoak.

Jose Ignacio Imaz zinegotziak dio dekretu batean agertzen dela edukiontzia erosteko akordioa, eta beraiek akordio horren aurka bozkatuko

dutela, horren atzean dagoelako zaborrak kontrolik gabe jasotzeko sistema berria eta erraustegia, eta ez dutela baimenduko pausoak ematea norabide horretan, beraz, aurka bozkatuko dutela.

Bestalde, aipatu du Caballeroren isunaren dekretua nahiko esajeratua dirudiela. Alkateak dio, dirudienez, enpresa horrek palet asko uzten dituela pabilioien inguruan, eta, gainera, iltzeak egoten direla kalean. Beraiekin hitz egin dute eta esan dute kenduko dituztela; horrela, ez da isunik jarriko.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

KALE NAGUSIA, 20-26KO URBANIZAZIOA ERABERRITZEKO PROIEKTUARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.

Puntuaren hasieran Jose Ramón Epelde zinegotziak esan du bere etxeari buruzko gaiak agertzen direla puntu honetan, eta Pleno aretotik aterako dela, zinegotziek libre hitz egin dezaten. Aretotik atera da.

Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak adierazi du alde egin duen zinegotzia bertan izatea nahi zuela, zinegotziak berak esan zuela espaloien gastuak berak egin zituela, eta, orain, udal teknikariek adierazten dutela Udalak ordaindu dituela beti gastu horiek. Bestalde, jakin nahi du zertan den aurreko espaloien aldaketa.

Alkateak dio Udaleko teknikaria Diputazioko teknikariek izan dela hori aztertzeko, baina oraindik ez dagoela proposamenik.

Irurako Udalak Irurako Kale Nagusiko 20-26 zenbakietako Urbanizazioaren Berrikuntza Proiektua egikaritu nahi du, Iñaki Arregi Garitano udaleko arkitekto teknikoak 2015-04-05 datan idatzitako proiektuarekin adostasunean.

Por este Ayuntamiento de Irura, se quiere proceder a la ejecución del Proyecto de Reforma de Urbanización de Kale Nagusia, 20-26 de Irura, de acuerdo con el Proyecto redactado por el arquitecto técnico municipal Iñaki Arregi Garitano con fecha 05-04-2015.

Baina, aurretiaz, proiektua onartu nahi da kaltetutako bizilagunei eta hiritarrei orokorrean bermerik handienak emate aldera.

Previo a ello, se quiere proceder a su aprobación con las máximas garantías de cara a los particulares afectados y a los ciudadanos en general.

Ikusita udaleko txosten teknikoak.

Vistos los informes técnicos municipales.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

Ante, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ERABAKIA

Lehena.- Aipatu den proiektua onartzea hasiera batean.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea hogeit eguneko epean, aztertua izateko eta dagozkion alegazioak aurkezteko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedapen handieneko egunkarian iragarri.

Halaber, kaltetutako bizilagunei banan-banan jakinaraziko zaie.

Hirugarrena.- Aurkeztu diren alegazioak ikusita, dagozkion akordioa hartuko da.

Alegaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartu dela joko da, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko da.

Puntua amaituta, bilerara itzuli da Jose Ramón Epelde zinegotzia.

ACUERDO

Primero.- Aprobar inicialmente el Proyecto citado.

Segundo.- Someterlo a información pública durante el plazo de veinte días para que pueda ser examinado y presentarse las alegaciones correspondientes, mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y publicación en el diario o diario de mayor circulación en la misma.

Así mismo se notificará individualmente a los particulares afectados.

Tercero.- A la vista de las alegaciones presentadas se adoptará el acuerdo correspondiente.

En el caso de que no se presente ninguna, se entenderá aprobado definitivamente y se publicará anuncio del mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

LAUGARREN GAIA

IRURAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ZUZENKETAREN AGIRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkariak dio espediente horren helburua dela Sorturen kalea bezala ezagutzen dugunari hirigintzako kalifikazioa aldatzea Plan Orokorrean: orain lur partikular gisa agertzen da, eraikitze eskubiderik gabe, baina bide publikoa izan behar du. Azkenean, Plan Orokorrearen akats-zuzenketa bezala tramitatuko da, baina espedientearen akats bat nabaritu da eta hurrengo Osoko Bilkuran erabakitze utziko da.

Beraz, Udalbatzak aho batez erabaki du gaia mahai gainean uztea.

BOSGARREN GAIA
AMETSA PILOTA ELKARTEAREKIN HITZARMENA ONARTZEA,
HALA BADAGOKIO.

Idazkariak adierazi du gai hau sartu zuela Ametsa Pilota Elkartearekin 2014-2015 ikasturterako hitzarmena onartzeko, baina gero konturatu dela 2015ean onartu zela hitzarmen hori (2015-06-09), beraz, proposamenak ez dauka zentzurik. Aurrerago onartuko beharko da, ahal bada, 2016-2017 ikasturterako hitzarmena.

Beraz, Udaltzak aho batez erabaki du gaia bertan behera uztea.

SEIGARREN GAIA
ZAHARREN BILTOKIA ELKARTEARI 2014KO GASTUENGATIK DIRU-
LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udalak "ZAHARREN BILTOKIA" Elkarteari urtero ematen dio dagokion diru-laguntza, bere jarduerak finantzatzeko.

2015eko ekainaren 2an hitzarmena sinatu zen, ondorengo urteetan (2015, 2016, 2017, 2018) aipatu diren ekintzak diru-laguntzaren bidez finantzatzeko.

2014. ekitaldiko gastuen finantziarioa falta da. Izan ere, lehen, urteko diru-laguntza ematen zen aurreko urteko gastuaren arabera, eta urte horretako (2014) gastuak ez dira lagundu.

Ikusita udal teknikoaren txostenak, Udaltzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA

1.- Irurako "Zaharren Biltokia" jubilatuen elkarteari, 3.300 euro ematea 2014an burututako ekintzengatik, eta ordaintzea.

Partida: 1.0000.481.231.00.00.2016.

2.- Diru-laguntza ordaindu aurretik agiri hauek aurkeztu behar dira:

-Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

-Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak.

ZAZPIGARREN GAIA
GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek aztertu dira:

- A) Alkateak adierazi du denok dakigula zer gertatu den Belgikan, eta Eudelen deia jaso duela bihar elkarretaratzea egiteko, eguerdiko hamabietan, Udaletxe aurrean, atentatua arbuiatzeko.
- B) Alkateak adierazi du joan den hilean etorri zela Maribel Vaquero Diputazioko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendaria Udalekin bilera egitera, eta talde batzuk ez zirela etorri. Bertan, dokumentu bat banatu zuen, eta alkateak orain ematen die udal-talde guztiei azter dezaten. Udal-taldeek jaso dute dokumentua.
- C) Alkateak esan du aurreko hilean etorri zela epaitegiko agindua, udaletxean dagoen presoan aldeko pankarta kentzekoa, eta epea amaitzen ari dela.
Olaia Nieto zinegotziak adierazi du aginduak esaten duela balkoian zegoen kartela kentzeko, eta, orain, kartel hori ez dagoela balkoian, eta ez dutela kenduko orain dagoena, ez delako kartel bera.
Alkateak galdetu du zer bidali behar den, balkoiko argazkia edo fatxadako argazkia, eta idazkariak erantzun du fatxadako argazkia bidali behar dela.
Olaia Nieto zinegotziak erantzun du, orduan, kenduko dutela kartela argazkia ateratzen den bitartean eta berriro horrela jarriko dutela.
- D) Olaia Nieto zinegotziak galdetu du ea zer egiten ari diren estankoaren aurreko espaloian.
Alkateak erantzun du karga eta deskarga gunea prestatzen ari direla, hamar minuturako, eta arratsaldeko zortziak arte izango dela.
Mikel Gotzon Iturbe zinegotziak dio ez daudela horren aurka, baina, beti bezala, arazo handiena hori kontrolatzea izango dela.
- E) Olaia Nieto zinegotziak adierazi du plazako pibotearen kontrola, batzuetan, gaizki dabilela eta horrek arazo asko dakartzala inguruan bizi direnentzat. Hori esan duela jakinaren gainean egoteko eta, ahal bada, konponbideak bilatzeko.
Alkateak erantzun du kontuan hartuko duela arazo hori eta esango diela udal zerbitzuei.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIATZATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA